


ARAUNDI BASERRIA
C MAILA

ARAUNDI 24



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Behe oina, lehen oina eta bi isurkiko estalkipeko oina ditu. Harlangaitz horma entokatuko fatxadak ditu, kateatzeetan eta behe oineko ateetan harlanduko hainbat elementurekin. Badira zurezko bilbadura bidez ebatzitako goialdeko zonak, eta zabalera uniformea duten leihoetan zurez ere egindako leihoburuak agertzen dira. Etxeari bere atzealdean zati bat gehitu zaio.

Babes erregimena

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: gorputz erantsiak eta leihotako arotzeriak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta zurezko egitura bilbaduretan eta estalkian.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.